

JOANES ILLARREGI MARZOL

«Puntu onean nago, ez nuke nahi konformatu hor egotearekin soilik»

Leita, 1999. Laugarren txapelketa du, eta hirugarren finala. Txapelketa Nagusiko finalean kantatutako lehenbiziko bertsolaria izanen da Nafarroako final batean kantari, txapelketen sasoi berrian. Hasi arte, bazuen neke sentsazio bat. «Euskal Herriko txapelketaren desgastea ondoko finalisten saioekin lotu zen. Beste-lako saioak, udakoak... Hori pasatu eta berriz gurpil horretan sartzeko neke puntu bat izan dut, baina behin barnean, gogotsu nago».

Orain arte egin duzun lanarekin gustura zaude?

Oso, bai egindako saioak nola joan diren eta baita ze sentsazio eta jarrera eduki ditudan ere, askotan gertatzen delako disgustura egotea edo ez jakitea nola heldu gaiei. Ariketa guztietan ez, baina oro har sentsazio oso onak izan ditut, eta horrek beste segurtasun, gogo eta indar bat ematen dit finalerako.

Eta nola ikusi dituzu saioak orokorrean?

Uste dut Nafarroan maila ona dagoela eta esango nuke ez direla saio txarrak izan, baina bai gorabeheratsuak. Txapelketara ohitzea kosta egiten da, bi urtetik behin da eta ez duzu kontrolatzen zein gorputzaldirekin joango zaren. Horri gehitzen badiozu Lesakan, adibidez, 500 entzuleko finalerdi bat jokatu zela, kasik final ttiki bat da, eta ohituta ez dagoenarentzat ez da erraza. Tentsio puntu batek on egiten du, presio gehiegik kalte.

Plaza gutti egitearekin ere baidu zerikusia, ezta?

Zenbat eta plaza gehiago egin, zure buruarengan konfiantza

hartzen duzu. Jardun gabe zaila da saio distiratsu bat egitea. Txapelketa nagusia eta gero urte hau ona izan da niretzat plaza aldetik. Orain nahiko lasai nago, baina udan asko eduki ditut. Gehiegi ibiltzeak nekea eta erretzea ekar dezake, baina justu udatik aurrera lasaiago nago. Oreak hori ez dago zure esku, batez ere plaza gutxi dauzkazunean. Asko badoauzazu erabaki dezakezu.

Zer gogo eta sentipen dituzu finalera begira?

Oso gogotsu nago, ilusio handiarekin hartzen dut. Aurreko

bi finaletan egon naiz, badakit zer den hori bizitzea, eta errepikatzeak ohorea eta poza ematen du. Aldi berean, jada hirugarrena izaki, nire burua puntu on batean ikusten dut, ez nuke nahi konformatu hor egotearekin, baizik eta ahalik eta saio hoberena egin, ongi pasatu eta gozatu, bertsotara joanez, lehiatuz besteekin eta batez ere nire buruarekin.

Zein ariketa gelditu zaizkizu gogoan, ongi sentitu zarelako edo ez duzulako nahi zenuena eman?

Ariketa bereziak baino gehiago, orain arte ofizioetan oso gustura eta suelto aritu naiz oro har, baina bakarkakoetan arantzatxoa dut ez dudalako nire maila eman, ez dudalako prestatu dudan beste eman. Nahi nuke finalean daukadan arantzatxoa kendu eta ofizioetan orain arte bezala segitu.

Zein ariketa gustatzen zaizkizu gehien?

Zortziko ttikia, hamarreko ttikia. Seiko motza ere asko gustatzen zait; honetan kantatzea seinale ona litzateke, buruz burukoan bakarrik baitago. Beste batekin egitekoak diren ariketak gustatzen zaizkit, batez ere elkarriketa bat egiten asmatzen badugu, urduritasu-nagatik batzuetan pasatzen delako bakoitzak berea esatea eta kitto.

Nola prestatu zara?

Ez dut deus ere berezirik egin. Elkartu bertsotarako, kantatu eta inoiz ez konformatu, beti beste ertz bat bilatzen saiatu. Hainbeste gai daude pil-pilean, batzuk hain labainko-

rrak, horien jakitun izan eta iritzi bat sortzen saiatu.

Nola ikusi duzu publikoa? Gero eta interes handiagoa pizten ari zarete.

Elkarri lotutako bi faktore ikusten ditut: alde batetik, Nafarroako txapelketan bertso maila igo egin da eta entzuteko interes handiagoa dago. Bestalde, finalari begira, aurreten inoiz baino irekiago dago txapelerako aukera, inoiz baino hautagai gehiago egon litezke, eta morbo hori asko gustatzen zaio jendeari. Aurreten Nafarroatik kanpo ere jarraipen handia eduki du.

Zein da gaur egun bertsoarekin duzun harremana?

Etengabeko harreman osasuntsu bat daukat, baina obsesiboa izateko puntura hel daiteke. 100% zeharkatzen du bertsoak nire egunerokoa, askotan nahita, bestetan hala-beharrez. Oso gustuko dut.

Txapelaren bila joanen zara?

Bila bila... saiatuko naiz nire saiorik onena egiten, hortik aurrerakoak epaileen esku. Saio oso on bat egin eta epaileek erabakitzen badute txapela niretzat izatea, noski ilusio izugarria egingo didala. Badakit aukera hor dagoela, baina itsutu gabe. Denek gure finalik hoberena egitea nahi dut, hori delako Nafarroako bertsoaren plaza gorena eta ardura bat dugulako. Hori lortuz gero, ni pozik. Espero dut izugarrizko giroa egotea, bertso mailaz oso saio ona ateratzeko osagai asko daude, jakin beharko dugu burua hotz mantentzen, festan daudenak behean daude, gu lanerako goaz. Final oso ona atera daiteke eta aterako da, baina horretarako lan egin beharko dugu.

